



DIRU-SARRERREN ITURRIAK

Diru-sarrera nagusia banda elastiko adimendunaren salmenta zuzena izango litzateke. Prezioa eskuragarria izatea bilatuko litzateke, biztanleriaren gehiengoak erosi ahal izateko, baina aldi berean ekoizpen-kostuak, ikerketa, teknologiaren garapena eta mantentzea estaltzeko eta etekinak lortzeko modukoa. Produktu hau bereziki zuzenduta egongo litzateke adineko pertsonen, bihotzeko arazoak dituztenei, kirolariei eta, oro har, osasuna modu prebentiboan kontrolatu nahi duten pertsonen.



Beste diru-sarrera iturri garrantzitsu bat administrazio publikoarekin egindako hitzarmenak izango lirateke, batez ere osasun-sistemearekin. Hitzarmen horien bidez, gobernuak banda elastikoak kantitate handietan erosi ditzake ospitaleetan, osasun-zentroetan edo prebentzio-programetan banatzeko. Horrek enpresari diru-sarrera egonkorrak eta epe luzekoak emango lizkioke, eta aldi berean herritarren osasun-arreta hobetzen eta bihotzeko anomalien detekzio goiztiarra sustatzen lagunduko luke.



Horrez gain, enpresak zerbitzu osagarriak eskainiz ere diru-sarrerak lor ditzake, adibidez, banda elastikoarekin lotutako aplikazio mugikor baten bidez. Aplikazio horrek bihotz-datuen jarraipen zehatzagoa edo txosten mediko osoagoak eskaintzeko aukera eman dezake. Oinarrizko funtzioak doakoak izan litezke, eta funtzio aurreratuak ordainpekoak, horrela produktu nagusia gehiegi garestitu gabe diru-sarrerak handituz.

Salmenta prezioa 70–80 euro ingurukoa izango litzateke, kostuak estaltzeko, ikerketa eta garapenean inbertitzeko, softwarearen mantentzea bermatzeko eta irabazi-marjina egokia lortzeko. Administrazio publikoarekin eta osasun-sistemearekin egindako hitzarmenen kasuan, unitateko prezioa 50–60 euro ingurukoa izango litzateke, kantitate handietan erostearen ondorioz, eta horrek enpresari diru-sarrera egonkorrak bermatuko lizkioke, produktua herritarrentzat eskuragarriagoa bihurtuz.